

LAINOETARAINO

Leila 10 urteko neskatila bat zen, bera berez Cuban bizi zen bere gurasoekin baina bere gurasoak banandu egin zirenez Leila bere amarekin bizitzera joan zen, Washingtonera. Washington oso desberdina zen Cubarekin konparatuta eta Leilari hasieran kostatu egin zitzaion han lagunak egitea baina azkenean lagunak egin zituen: Minda eta Jessie. Oso lagunak hirurak, eta hirurek amets berdinak, zeruari buruz gehiago jakitea, hau da, eguraldia nola aldatzen zen jakitea iñork ez zekielako nola aldatzen zen.

Egun batean, Leila ikastolara joan zen bere lagunekin eta juxtu egun horretan froga bat zeukaten, oso zaila zena eta hirurak oso urduri zeuden. Froga egin eta gero elkarri zeukaten erantzunak esaten ibili ziren, eta hirurek gauza berdinak zeuzkaten. Aste bat geroago froga zuzenduta eman zieten eta hirurek dena ondo zeukaten, bikaina! Leilak eta bere lagunak esan zuten:

- Zelako ondo dena ondo daukat!
- Baita nik ere!
- Eta nik!

Azterketa zuzenduta eman eta gero, hirurak gurasoei esateko irrikan zeuden. Etxera joateko ordua iritsi zenean, Leila ikasgelatik korrika atera zen lehenbailehen etxera iristeko. Etxera iritsi zenean bere amari froga eman zion eta ama emozioarengatik negarrez hasi zen, aste bukaera osoa ikasten eman zuelako eta froga oso zaila zelako.

Aste bukaera horretan zerura joateko plan bat egin zuten, munduko pertsona azkarrenak esaten zuen eskailera handi-handi bat zerura botako balitz, zeruko erreinura iritsiko ginela. Horrela egin zuten berak eta bere lagunak, eskailera hartu eta kalera atera ziren probatzeko, hasieran pentsatzen zuten ez zuela funtzionatuko baina ez zen horrela izan. Funtzionatu zuen!

Leila eta bere bi lagunak zeruraino iritsi ziren eta han ez zuten ezer ikusten lainoengatik, baina bat- batean burbuila mordo bat ikusi zituzten gaztelu baterantz joaten eta hiru lagunak burbuilen atzetik joan ziren. Gaztelura gerturatzen ari zirenean Mindak burbuila bati galdetu zion:

- Barkatu nora zoazte?

Burbuilak erantzun zion:

- Gaztelura, erregearengana, gaixorik dago eta. Nahi duzue gurekin etorri? Nola deitzen zarete? Ni Brili.

Hiru lagunak erantzun zuten:

- Bale
- Eta Minda , Jessie eta Leila gara.

Hirurak eta Brili gaztelura sartu ziren. Han, zeruko erregea ohean etzanda zegoen eta hirurek esan zuten:

- Kaixo jauna gu Lurretik gatoz.
- Zer nahi duzue?
- Egururaldiari buruz gehiago jakitea nahi dugu, hau da nola aldatzen den.
- Bale nik esango dizuet: Urtaroak, eta ondorioz eguraldia, lurraren ardatzaren inklinazioaren menpe daude, eta ez eguzkia eta lurraren arteko distantziaren menpe soilik, jende guztiak uste duen bezala.
- Eskerrik asko, orain badakigu nola aldatzen den eguraldia zuri esker, baina orain joan beharra daukagu.
- Ez mesedez, zuek zarete lagundu ahal didaten bakarrak zerbait gertatzen bazait. Gelditu hemen nirekin, eta horrela nik dakidana baino gehiago jakingo duzue zuen kabuz ikertzen.
- Bale hemen geldituko gara baina lehenengo Lurrera bueltatu behar gara gure gurasoeri abisatzeko.
- Bale gero etorri mesedez.

Jessie, Minda eta Leila lurrera bueltatu ziren eta beraien amei galdetu zieten:

- Ama, nire ametsa betetzea nahi dut zuk badakizun bezala, eta jada lortu dut nire ametsa betetzea baina zerura joan beharra daukat nire ametsa betetzeko. Uzten didazu zeruan bizitzen? Lasai zeruko erregea nitaz eta nire lagunetaz arduratuko da.
- Bai, zure ametsa hori bada aurrera, baina batzuetan etorriko zara bizitatzera ezta?
- Bai noski.

Leila bere lagunekin geratu zen berriz zerura joateko.

Urte bat pasa ondoren jada hirurek eguraldiari buruz asko zekitenean, zeruko erregea oso- oso gaizki jarri zen eta hil aurretik hirurei eskerrak eman zieten eta Leilari esan zion:

- Leila oso lagungarria izan zara, eta zure lagunak ere baina ni oso gaixorik nagoenez zuri ematen dizut tronua.
- Eskerrik asko jauna.
- Eta hiruren eskuetan uzten dut zeruko erreinua espero dut ondo zaintzea.

Segundu batzuk geroago, erregea arnas barik geratu zen eta hiru lagunak oso triste jarri ziren. Jada beraien eskuetan zegoen.